

VUELING AIRLINES, SA. ETA ASEGURUEN ETA BERRASEGURUEN EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, SA. ENPRESEN ARTEAN SINATUTAKO BIDAIAKO LAGUNTZA-KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Maskoten Aukerako Asistentzia Asegurua

1.- DEFINIZIOA

ISTRIPUA

Indarkeriazko, bat-bateko, kanpoko eta aseguratutako maskotaren asmotik kanpo dauden arrazoiengatik sortutako gorputz-lesioa edo kalte materiala.

ASEGURATUA

Ohiko bizilekua Europako edozein herrialdetan edo Mediterraneo ertzeko herrialderen batean duen pertsona fisikoa, bere maskotarekin hegaz egiten duena, **VUELING**-ekin hegaldi batean eta bere borondatez aseguru hau kontratatzen duena, **EUROP ASSISTANCE**-ri jakinaraziz.

ASEGURATZAILEA

ASEGURUEN ETA BERRASEGURUEN EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, SA (aurrerantzean **EUROP ASSISTANCE**) kontratu honetan zehaztutako arriskua bere gain hartuz.

OHIKO BIZILEKUA

Aseguratuaren ohiko bizilekutzat hartzen da **VUELING AIRLINES, S.A.**-rekin erositako hegaldia hasi den eta hegaldiaren kontratazioan jasota geratzen den Europako edozein herrialdetan edo Mediterraneo ertzeko edozeinetan dagoena. Maskotari laguntzeko pertsona bat joan behar denean, Kontratu honetan aurreikusitako bermeak aplikatuz, joan-etorri hori Ohiko bizilekua den herrialdetik egingo da, atal honetan definitzen denaren arabera.

GAIXOTASUN LARRIA

Bidaiaari hasiera ematea ezinezko bilakatzen duen, aurreikusitako datan bidaiaren jarraipena saihesten duen edo hiltzeko arriskua eragiten duen Aseguratutako Maskotaren osasun egoeran gerta daitekeen edozein aldaketa.

SORTUTAKO GAIXOTASUNA

Bidaian zehar Aseguratutako Maskotaren osasun egoeran gerta daitekeen edozein aldaketa, kontratuak estalitakoa, horren diagnostikoa eta egiaztapena legez aitortutako albaitari batek egiten badu eta horren ondorioz osasun-laguntza behar badu.

ATZERRIA

Bermeen ondorioetarako atzerritza jotzen da, Aseguratuaren Ohiko Bizilekukoa ez den herrialdea, definizioen edo/eta Aseguratuaren nazionalitatearen arabera, hark hegaldia erostean adierazi duena.

ASEGURATUTAKO MASKOTA

Aseguratutako Maskota gisa hartuko dira, eta kontratu honen xede izango dira, soilik Aseguratu titular den eta txip identifikatzailea duten txakurrak eta katuk. Katuen kasuan txip identifikatzailea beharrezkoa ez den Autonomia Erkidegoetan, Aseguratuak, maskotaren jabetza egiaztatuko duen identifikazio agiria aurkeztu beharko du. Halaber, Aseguratutako Maskota gisa hartuko dira hegaztiak

(hegazti harrapariak izan ezik), arrainak eta akuarioko dordokak.

Baztertuta geratzen dira beste animalia familia batzuk, karraskariak, ugaztun lagomorfoak (untxiak, adibidez), granjako animaliak edo eragozpenak sor ditzaketen usainak (huroiak) edo zaratak sortzen dituzten animaliak.

ONE-WAY

Soilik joaneko bidaia.

ASEGURUAREN HARTZAILEA

Aseguratzailerekin kontratu hau izenpetzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, eta hari dagozko handik sortutako betebeharrak, beren izaerarengatik Aseguratuak bete behar dituenak salbu.

BIDAIA

Bidaia gisa ulertuko da, **VUELING AIRLINES, S.A.**-rekin erositako hegaldiaren bitartez Aseguratuak bere Ohiko Bizilekutik kanpo egiten duen joan-etorri oro, hegaldia irten eta bertara itzuli arte.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honetan zehaztutako estalduren arriskuen ondorioen, eta Ohiko Bizilekutik at **bidaian zehar** nahigabeko ekintza baten ondorioz sortutakoan aurrean bermatzea, estalitako Lurralde Eremuaren barnean, eta bertan aipatutako mugekin. Kontratuaren bermeek ez dute ondorioz izango bidaia amaitzen denean eta Aseguratu Ohiko Bizilekura itzultzen denean.

3. LURRALDE-EREMUA

Bermeak **VUELING**-ekin kontratatutako hegazkin-txartelaren barruan dauden herrialdeetan emango dira. **One way kasuetan laguntza VUELING AIRLINES, S.A.-n erositako txartelaren jomuga-tokian emango da soilik.**

Kanpoan geratzen dira, nolana ere, kontratatutako lurralde-eremuan adierazitako herrialdeak izanik ere, joan-etorrian zehar gerra, matxinada edo edozein mota edo izaerako gatatzka beliko egoeran daudenak, ofizialki hala aldarrikatuta egon ez arren. Kasu horretan EUROP ASSISTANCE-k behar bezala itzuliko ditu egiaztatuta dauden estalitako gastuak, hori egiaztatzen duen jatorrizko fakturarekin.

4. BIDAIAAREN IRAUPENA

Bermeak emango dira **VUELING**-ekin kontratatutako hegazkin-txartelak barruan hartzen dituen herrialdeetan, eta gehienez ere 30 egun iraungo dute.

One way bidaien kasuan, estaldurak gehienez ere 15 eguneko estaldura izango du, bidaia hasten den egunetik.

5. FRANKIZIA KILOMETRIKOA

Laguntza, Aseguratuaren Ohiko Bizilekutik 35 kilometrotik aurrera izango da baliozkoa (15 km irletan).

6. EZBEHARRETA KO IZAPIDEAK

Kontratuan estalitako bermeetako bat emateko orduan gertaeraren bat izanez gero, nahitaezko baldintza izango da ezbeharraren berri berehala ematea **34.91.514.00.10 telefono-zenbakira edo 91.514.99.50 fax zenbakira deituta, edo ezbehar horren berri emateko beste bideren bat erabiliz; oro har, berariaz kanpoan geratuko dira EUROP ASSISTANCE-ri aldeztu aurretik jakinarazi ez zaizkion prestazioak eta baita dagokien baimena lortu ez duten prestazioak ere**

Ohar hori egitea eragozten duen ezinbesteko kasuan, eragozten duen arrazoiak desagertu bezain laster egin beharko da.

Harremana ezarrita, aseguruak honako hauek adieraziko ditu: **izen-abizenak, non dagoen, harremanetarako telefona.** Horrez gain, ezbeharraren egoeraren berri nahiz eta eskatutako laguntza-motaren berri emango du.

Jakinarazpena jasota, **EUROP ASSISTANCE-k** beharrezko jarraibideak emango ditu eskatutako zerbitzua betetzeko asmoz. Aseguruak **EUROP ASSISTANCE-k** emandako jarraibideak bete gabe jarduten badu, **ez-betetze horren ondoriozko gastuak** aseguruaren kargu geratuko dira.

Bidaia bertan behera utziz gero, Aseguruak aurretik horren hornitzaileari jakinarazi beharko dio, baliogabetzea gauzatzeko.

Edozein gastu itzultzeko vueling.europ.es webgunera jo ahal izango du eta, han, "On line izapideak" dioen atalean sartu ahal izango da itzultzeko eskaera sortzeko eta izapidearen jarraipena egiteko; edo bestela, Apartado de Correos 36316 (28020 Madrid) helbidera jo. Kasu guztietan ezinbestekoa izango da jatorrizko fakturak eta frogagiriak aurkeztea.

7. ASEGURATUAK KEXA AGERTZEN DUENEAN EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

EUROP ASSISTANCE-k Erreklamazio Zerbitzua jartzen du Aseguratuaren esku eta haren araudia webgunean kontsulta daiteke. Kexak aurkeztu ahal izango dituzte, aurrekoen edozein hartzailek, aseguratuk, onuradunek, kaltetutako beste batzuek edo kausadunek, webgunearan "Bezeroaren Defentsa" atalean, edo Erreklamazio Zerbitzura idatzi bat bidalitz:

Helbidea: Servicio de Reclamaciones
Cl. Orense, 4 – Planta 14
28020- MADRID

Era autonomoan funtzionatzen duen zerbitzu horrek zuzentzen zaizkion idatzizko kexak gehienez ere 2 hilabetetan erantzun eta ebatziko ditu ondorengo legeak betez: ECO/734/2004 Legea, martxoaren 11koa, eta 44/2002 Legea, azaroaren 22koa.

Erreklamazio Zerbitzua bidea agortuta, erreklamazioak kexa, Aseguratuaren eta Pentsio Planen Parte-hartzailearen Defentsarako Ordezkaritzaren aurrean (Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari atxikia) aurkeztu ahal izango du; haren helbidea honako hau da:

Pº de la Castellana, 44
28046- MADRID

8. SUBROGAZIOA

EUROP ASSISTANCE subrogatzen da, hark emandako zerbitzuen kostu guztien zenbatekoraino, Aseguratuari dagozkion eskubideetan nahiz ekintzetan, gertaeren erantzule den eta bere esku-hartzea eragin duen pertsona ororen aurkako eskubide nahiz ekintzetan. Kontratu honen egikaritzean egindako bermeak beste aseguru-etxe batek, Gizarte Segurantzak edo beste erakunde edo pertsona batek guztiz edo zati batean betetzen dituztenean, **EUROP ASSISTANCE** aseguruaren eskubide eta ekintzetan subrogatuta geratuko da aipatutako konpainia edo erakundearen aurrean.

Ondorio horietarako, aseguruak **EUROP ASSISTANCE**-rekin lankidetzan aritzeko beharra du edozein laguntza eskainiz edo beharrezkoa jotzen den edozein dokumentu emanez.

Nolanahi ere, **EUROP ASSISTANCE-k** aseguruari garraio-titulua emateko edo eskatzeko eskubidea izango du (treneko txartela, hegazkinekua...) itzultzeko gastuak **EUROP ASSISTANCE**-ren kontu geratzen direnean.

9. ERANTZUKIZUNA

Ezbehar bat gertatu ondoren, **EUROP ASSISTANCE-k** ez du Aseguruak hartutako erabaki nahiz jarduerari buruzko inolako erantzukizunik bere gain hartuko, bere jarraibideen aurkakoak direnean.

10. LEGERIA ETA JURISDIKZIOA

Aseguratu eta **EUROP ASSISTANCE** Espainiako legeriaren eta jurisdikzioaren mende daude kontratu honen ondorioetarako. Epaila eskuduna izango da Aseguratuaren Ohiko Bizilekuaren kontratutik ondorioztatutako ekintzak aitortzeko.

11. BERMATUTAKO MUGAK

Kontratu honen prestazio bakoitzean mugatzen jarritako zenbateko ekonomikoak bidaian zehar metagarriak diren gehieneko zenbatekotzat joko dira.

ESTALITAKO BERMEAK

Maskota gisa hartuko dira, eta kontratu honen xede izango dira, soilik txip identifikatzailea duten edo/eta indarrean dagoen legeriak hegazkinez bidaia egiteko ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituzten txakurrak eta katuak. Halaber, Maskota gisa hartuko dira hegaztiak (hegazti harrapariak izan ezik), arrainak eta akuarioko dordokak.

Edozein gastu ordaintzeko ezinbestekoa izango da jatorrizko fakturak eta egiaztagiriak aurkeztea, eta baita maskotaren osasun kartilla eguneratua, beharrezkoa den kasuetan.

1.- Albaitaritzea gastuak atzerrian

Kontratu honek estalitako bidaian zehar, Atzerrian, Aseguratutako maskotak bat-batean gaixotasuna edo ezustean izandako istripua izaten badu, **EUROP ASSISTANCE-k**, albaitaritzea eta aseguratutako erabakitako ospitalean ospitaleratze-gastuak bermatzen dizkio, **500 eurorainoko mugarekin.**

EDONOLA ERE, 50 EUROKO FRANKIZIA EZARTZEN DA, ASEGURATUAREN KONTURA, ESKATUTAKO OSASUN ZERBITZU GUZTIETAN ETA BAKOITZEAN.

2.- Aseguratuaren Ohiko Bizilekuaren herrialdeko albaitaritze-gastuak

Bere Ohiko Bizilekuko herrialdean egindako bidaian Aseguratutako maskotak bat-batean gaixotu edo ezustean izandako istripuaren kasuan, **EUROP ASSISTANCE-k**, albaitaritzea eta aseguratutako erabakitako ospitalean ospitaleratze-gastuak bermatzen dizkio, **300 eurorainoko mugarekin.**

EDONOLA ERE, 50 EUROKO FRANKIZIA EZARTZEN DA, ASEGURATUAREN KONTURA, ESKATUTAKO OSASUN ZERBITZU GUZTIETAN ETA BAKOITZEAN.

3.- Maskota sakrifikatzea

Kontratu honek estalitako bidaian, Aseguratutako maskotak bat-batean gaixotasun edo istripu sendaezina izaten badu eta horrek, albaitariaren iritziz, Aseguratutako maskota sakrifikatu beharra eragingo balu, **EUROP ASSISTANCE-k** sakrifizioaren, ehorzketaren edo erretzearen gastuak ordainduko ditu, **600 eurorainoko mugarekin.**

4.- Istripuaren ondoriozko heriotza

Kontratu honek estalitako bidaian, Aseguratutako maskota istripuaren ondorioz hiltzen bada, **EUROP ASSISTANCE-k** horren ondorioz sor daitezkeen gastuak ordainduko ditu, albaitaritze-gastuak, leku batetik bestera eramatekoak eta ehortzi eta erretzekoak **600 eurorainoko mugarekin.**

5.- Bilaketa gastuak maskota galdu edo desagertu egiten bada

Kontratu honek estalitako bidaian, Aseguratutako maskota galdu edo desagertu egiten bada, **EUROP ASSISTANCE-k** maskota aurkitzeko prentsan eta irratian jar daitezkeen iragarkien gastuak ordainduko ditu, **300 eurorainoko mugarekin eta gehienez ere, desagerpena gertatu eta 5 eguneko epean.**

6.- Kalte-ordaina maskota lapurtu edo galtzeagatik

Kontratu honek estalitako bidaian, Aseguratutako maskota lapurtu edo galdu egiten bada, **EUROP ASSISTANCE-k** animaliaaren balioaren kalte-ordaina emango du, **600 eurorainoko mugarekin gertakari bakoitzeko.**

7.- Animalien egoitzan edo hotelean egotetik sortutako gastuak

EUROP ASSISTANCE-k egoitzaren gastuak ordainduko ditu, kontratu honek estalitako bidaian Aseguratutako maskota, gaixotasunaren edo istripuaren

ondorioz larrialdiz ospitaleratu behar denean eta animaliaaren ardura hartu dezakeen beste pertsonarik ez dagoenean, **300 eurorainoko mugarekin.**

8.- Maskotak laguntzea

Aseguratutako, kontratu honek estalitako bidaian, Aseguratutako maskotaz arduratzea ezinezkoa baldin bada, gertaturiko gaixotasunaren, istripuaren edo heriotzaren ondorioz, **EUROP ASSISTANCE-k**, definizioen arabera Aseguratuaren Ohiko Bizilekua dagoen herrialdean bizi den eta aseguratutako edo haren familiak izendatutako pertsona baten joan etorriko bidaia antolatu eta bere kargura ordainduko du (trenean, lehen klasean, linea erregularreko hegazkinean, turista klasean edo bestelako edozein garraio egokitan), Aseguratutako maskota Ohiko Bizilekuraino itzultzen laguntzeko. **Aseguratutako, Aseguratutako Maskotaren jabetza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.**

9.- Hasi gabeko bidaia baliogabetzeko gastuak

300 euroko mugarainoko ordainketa bermatzen da Aseguratuaren kargura egiten diren eta salmentako Baldintza Orokorrek aplikatzearen ondorioz fakturatzen zaizkion **Aseguratutako maskotaren bidaia bertan behera uzteagatik** sortutako gastuengatik, indarrean dagoen legeria aplikagarriaren arabera eta beti ere bidaia bera hasi baino lehen eta aseguruia kontratatu ondoren. Gutxienez 72 ordu igaro beharko dira poliza kontratatu eta bidaia bertan behera geratzea eragin duen gertakariaren artean, eta bidaia bertan behera geratzeko zergatia hauetako bat izan beharko da:

- Aseguratutako maskotaren gaixotasuna edo heriotza.
- Aseguratuaren bidaia bertan behera geratzea, arrazoi hauetakoren bat dela eta:
 - Zuzenean Aseguratuari eragiten dioten zergatiak: hirugarren batek emandako agiri egiaztagiraren bitartez frogatu daitezkeen edozein zergati, hirugarren hori Elkargoko kide den Profesionala, Erakunde Publikoa edo Enpresa Pribatua bada ere, aurreikustezina eta Aseguratuaren borondatearen kontrakoa bada, Ondoren adierazten diren Esklusioetan ez dagoena eta kontratatutako egunetan bidaia egitea ezinbestean ezinezko bilakatzen duena.

Aseguruaren estalduraren ondoretarako, eta Aseguratuari dagokionez, honela ulertzen dira hauek:

- Gaixotasun larria: gizabanako baten osasun-egoera bat-batean aldatzea, mediku batek egiaztatua, gaixoa ohean egotera behartuko duena eta edozein jarduera profesional edo pribatu etetera behartuko duena.
- Istripu larria: Indarkeria, bat-bateko, kanpoko eta istripua jasandako pertsonaren asmotik at dagoen arrazoi batetik sortutako gorputz-lesio edo kalte material oro; horien ondorioek bere ohiko bizilekutik kanpora normal ateratzea eragozten badiote, gainera.

Estalduratik kanpo geratzen dira gertakari hauek:

A) Baliogabetzearen zergatia egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztuz frogatzen ez den edozein arrazoi.

B) Beste batek Aseguratuari edo Aseguratuei ordaindu ahal izango dizkien kalte-galeren zenbatekoak.

C) Aseguratuaren ekintzak:

1. Aseguratuak bidaiarako ezinbestekoa den edozein dokumentu ez aurkeztea (pasaportea, aire-txartelak, bisatuak, txertatze-ziurtagiriak...), justifikatu gabeko arrazoiengatik bisatuak ez ematea salbu, baldin eta Aseguratuak beharrezko kudeaketak egin baditu hura emateko epeen barruan eta ezarritako moduan.

2. Aseguratuak nahita eragindakoak.

3. Engainuzko ekintzak, nork bere buruari egindako lesioak edo suizidioa.

4. Jatorria zuhurtziagabekeria ausartegian, arduragabekeria larrian edo delitu-ekintzen ondoriozko ekintza batean dutenak.

5. Aseguratu honako hauen eraginpean izanik gertatzen den edozein istripu: alkoholdu, edariak, drogak, estupefazianteak, psikotropikoak, bizigarriak eta antzeko beste substantzia batzuk.

Eragin hori erabakitze, zein istripu-mota den alde batera utzita, ezbeharra gertatzen den unean motordun ibilgailuen zirkulazioaren eta bide-segurtasuneko arloan aplikagarria den legeriak finkatutako mugak errespetatuko dira.

D) Ekitaldiak:

1. Aldarrikatutako edo aldarrikatu gabeko gerrak, matxinadak, terrorismo ekintzak, erradioaktibitate-efektua, herritarren mugimenduak, mugen itxiera, bai eta debeku ofizialak kontzienteki ez betetzea ere.

2. Edozein natura-hondamendi, naturaren ondoriozko fenomeno hauetako batzuk, esaterako: lurrikarak eta itsasikarak, aparteko uholdeak (itsas denboraleak barne), sumendien erupzioak, ekaitz zikloniko ezohikoa (135 km/h baino abiadura handiagoko haize-ufada apartekoak barne, tornadoak, suteak eta ekaitzak: atmosferaren aldaketa bortitza dakarren meteorologia-fenomenoa, tximistak, trumoiak, tximistargiak, haizea eta euri-jasa, elurra edo txingorra.)

3. Berrogeialdia, Aseguratu tratatzen ari den medikuaren aginduei jarraiki egiten ari den Berrogeialdia salbu, epidemiak edo kutsadura, jomuga-herrialdean.

4. Ekitaldiak bertan behera uztea, esaterako: kirolekoak, kulturalak, sozialak edo aisialdi eta aisiakoak, ekitaldiko antolatzaileak berak bertan behera utzitakoak salbu, frogagarriak direnak dagokien egiaztagiriarekin, baldin

eta bidaiaria egiteko arrazoi nagusia bertan izatea bada; halaber, Aseguratuak Aseguratuak ekitaldira joateko asmoa duela frogatzen duen dokumentazioa eskatuko du, adibidez: sarrerak, erreserbak edo ekitaldiaren data zehatza erakusten duten izen-emateak.

5. Garraibide-zerbitzua (aldi baterakoa edo ez) kentzea fabrikatzaileak edo agintari zibilek edo portu-agintariek hala eskatuta.

6. Jatorria greben ondoriozkoa bada.

7. Jatorria garraibideak izandako akatsen edo matxuren ondorioetan dutenak (elur-jausiengatik, elurteengatik edo uholdeengatik errepide edo trenbideetan sortutako kalteak ez direnak) aseguru kontratatzeke edo bidaiaria erreserbatzeko unean edota egonaldia edo antzekoren bat aurrez jakiten denean, honako hau frogatzen denean salbu: garraibidearen matxurarengatik edo akatsarengatik hegaldia bertan behera uztea eragiten duenean, garraibide hori kontratatutako hegaldia irteteko aireportura heltzeko hautatutako garraibidea denean. Aseguratuak beharrezko dokumentazioa eskatuko du arrazoi horrek utzi duela bertan behera frogatzeko (garbiaren parte, segurtasun-indarren atestatua, edo aireportura heltzeko erabilitako garraio-enpresaren frogagiria), eta bertan behera uztea ekarri duen gertakariaren data eta ordua ere jarri beharko ditu.

8. Bidaiaria egiteko behar adina parte-hartzaile/erreserba ez izatea edo Overbooking-a izatea.

9. Porrot, ordainketa-etete, kontratatutako aseguruari lotutako zerbitzuko hornitzailearen kontratua desagertu edo ez-betetzetik eragindakoak.

10. Ustekabekorik ez izatea edo bidaiatzeko gogorik ez izatea, besterik gabe.

E) Lan/ finantza egoera

1. Aseguratuaren lan edo/eta opor baimenak aldatzea, aseguru enplegatuta dagoen enpresak aldebakarrez sortutakoak salbu.

2. Aseguratuaren ekonomia eta finantza egoeretan izandako aldaketak, kasu hauetan izan ezik:

- Bidaiaria kontratatu zutenean sei hilabeteko lan mugagabea zuten eta langabezian geratuko ziren egoeraren jabe ez ziren besteen konturako langileen langabezi egoera.

- Beste enpresa batean lanean hastea, baldin eta hori aseguru kontratatu ondoren gertatzen bada eta bidaiaria kontratatutako datan haren berririk ez bazen.

- Bidaiaria kontratatutako dataren ondoren jakinarazitako lan-kontratuaren luzapena.

- Aseguratua nahitaz bere bizilekutik at joan behar izatea lan-arrazoiengatik, hiru hilabete baino gehiagorako, eta bere ohiko bizilekutik 300 kilometro baino gehiagora.

F) Gaixotasunak:

1. Aurretik zeudenak: Aseguratuaren gaixotasun kronikoen edo aurretik zituen gaixotasunen ondoriozkoak, baldin eta ezustean larriagotzen badira eta horrek bidaia egitea eragozten badu.

Aseguratutako edozeinen gaixotasun kronikoak edo aurretik zituen gaixotasunak, eta haiek behin egonkortuta, deskonpentsazioak edo larriagotzeak eragin dituztenak, poliza kontratatu aurreko 30 egunetan.

2. Aseguratuak mediku-perituaren bisita jaso nahi ez duenean eta aseguratzaileak peritu horren beharra dagoela erabakitzen duenean.

3. Bidaiaren xedea honako hau denean: tratamendu estetikoak, sendabide bat, txertoa hartuz izana edo hura ez hartzeko gomendioa, gomendatutako prebentziozko senda-tratamenduarekin jarraitzea ezinezkoa denean zenbait jomugatan, haurdunaldiaren borondatezko etetea, alkoholismoaren, droga eta estupefazianteen kontsumoaren kontrako tratamenduak, azken horiek mediku baten aginduz eta era egokian kontsumitzen ez baditu behintzat.

G. Ustekabekorik ez izatea edo bidaiatzeko gogorik ez izatea, besterik gabe.

- o Aseguratuari zuzenean eragiten ez dioten zergatuei dagokienez, abagune hauek ere estalita geratuko direla ezartzen da: ezkontide, guraso, seme-alaba, anaia-arreba, aitona-amona, biloba, iloba, koinatu-koinata, suhi, errain, aitaginarreba-amaginarreba edo izatezko bikotearen gaixotasun larria, gorputz-istripu larria edo heriotza.

Gaixotasun edo istripu larriak, Aseguratua ez den aipatutako pertsona horietakoren bati eragiten dionean, larritzat hartuko da ospitaleratzea eragiten duenean edo berehala hiltzeko arriskua dakarrenean.

Gastuak itzultzeko eskaerarekin batera, kalteen osasun ziurtagiriak, kontratatutako bidaiaren kostuaren jatorrizko fakturak, bertan behera uztearen gastuen ordainketaren ziurtagiria eta kontratazio edo erreserba buletina edo jatorrizko txartela erakustea eskatuko da, eta baita maskotaren osasun kartilla eguneratuaren kopia ere.

Ez dira inoiz itzuliko kreditu txartelez ordaindu izanagatiko gastuak, zergak edo EUROP ASSISTANCE-ren aseguruaren zenbatekoa ere.

Ez dira estalita geratuko aseguratutako maskotaren txartelean agertzen den izena duen pertsonak hasi

ez duen bidaia bertan behera uztearen gastuak.

10.- Maskotei buruzko informazio zerbitzua Espainian

Aseguratuak eskatuta, EUROP ASSISTANCE-k maskotarekin erlacionatutako Espainiako izaera orokorreko informazioa emango du telefonoz, hau, besteak beste :

- Laguntzako animaliak jasotzeko zentroak
- Txakurrak eta katuak onartzen dituzten hotelak.
- Txakurrentzako eta katuentzako oporretako egoitzak.
- Txakurrekin eta katuekin bidaiatzeko beharrezkoa den dokumentazioa.
- Derrigorrezko aseguruak eta txakur arriskutsuen erregistroa.
- Arraza klubak eta hazleen elkarteak.
- Pedigria lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa.
- Edertasun eta portaera lehiaketak.
- Maskoten hilerria.
- Albaitariaren arreta
- Bainu eta ile-apaindegi zerbitzua
- Arreta zerbitzua heriotzan
- Egoitzan egotea
- Pentsua eta janaria etxera bidaltzea

Eta baita Espainian maskotak edukitzearekin erlacionatutako beste edozein kontsulta ere.

KANPOAN GERATZEN DIRA

Berme hauek baliorik gabe geratuko dira aseguratutako maskota Ohiko Bizilekura itzultzen den unean. Kanpoan geratzen dira, orokorrean, aurretik EUROP ASSISTANCE-ri jakinarazi ez zaizkion gastuak eta beharrezko baimena jaso ez dutenak.

Edonola, ere, aseguratutako bermeetatik kanpo geratzen dira (bermean berariaz jasotzen diren kasuetan izan ezik), hauetatik sortutako kalteak, egoerak, gastuak eta ondorioak:

1. Aseguratutako maskotak bidaia hasi aurretik izan dituen eta bidaiaren agertzen diren gaixotasunak, lesioak edo kalte kronikoak.
2. Prebentzio izaera duten albaitaritzaz azterketak (txekeoak), zainketa termalak, tratamendu estetikoak eta bidaiaren xedea albaitaritzaz tratamendua edo ebakuntza kirurgikoa duten kasuak, botika alternatiboekin egindako tratamenduak (homeopatikoa, naturistak, etab.), fisioterapia edo/eta birgaitze tratamenduetatik eta antzokoetatik sortutako gastuak. Halaber, kanpoan geratzen dira ernaldiaren diagnostikoa, jarraipena eta tratamendua.
3. Aseguratutako maskotak apustuetan, erronketan edo borroketan parte hartzea.

4. Neguko kiroletan aritzetik sortutako ondorioak.
5. Lehiaketako kiroletan aritzea, eta baita jarduera arriskutsua egitea ere, lerak, abenturako kirolak eta antzekoak. Kasu horietan, EUROP ASSISTANCE-k, aseguratutako maskota albaitaritzaren zentro batean tratamendupean dagoen unetik aurrera sortutako gastuak baino ez ditu hartuko bere gain.
6. Maskoten erreskatea mendian, haitzuloetan, itsasoan edo basamortuan.
7. Hartzailearen, Aseguratuaren edo horien kausadunaren doluzko ekintzak.
8. Neglijentziako ekintzak aseguratutako maskota zaintzeko orduan.
9. Bat-batean agertutako eta biztanleriaren artean azkar zabalduko izurrite edo/eta gaixotasun infekziosoak, eta baita atmosferaren kutsaduraren ondorioz sortutakoak ere.
10. Gerrak, manifestazioak, altxamenduak, higikunde gatazkatsuak, terrorismo ekintzak, sabotajeak eta grebak, era ofizialean aldarrikatuta egon edo egon ez. Atomoaren nukleoaren transmutazioa eta, baita partikula atomikoen azkartze artifizialaren ondorioz sortutako erradiazioak. Mugimendu telurikoak, uholdeak, sumendien erupzioak eta, orokorrean, naturako indarren ondorioz sortutako guztiak. Ez ohiko hondamendi izaera duen beste edozein fenomeno edo gertakari, duen neurria edo larritasuna dela eta, hondamendi edo zorigaitz gisa sailkatzen bada.
11. Berariaz geratzen da kanpo kontratatutako hegaldia bertan behera uztea eragiten duen eta dagokion artikuluan estalitako berme gisa beren beregi adierazten ez den edozein zergati.

Azaldutako guztiaren kalterik gabe, berariaz baztertuta geratzen dira ondoren adierazten diren egoerak:

1. Mota guztietako protesien, pieza anatomikoen eta ortopedikoen erosketa, ezarpen-aldaketa, ateratzea edo/eta konponketa, lepoko isabelinoa, besteak beste.
2. 50 eurotik beherako osasun, kirurgia edo farmazia gastuen ordainketa.